517

EBAZPENA, 2006ko abenduaren 1ekoa, Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontrol zuzendariarena, 2005eko irailaren 22ko Ebazpenaren bidez Gikesa entsegu laborategiari emandako kreditazioa aldatzeko baimena ematekoa. Baimen hori arlo hauetan kalitatea kontrolatzeko eman zen: «hormigoiaren eta haren osagaien, eta altzairuzko armaduren kontrola», 10005EHA05 kodearekin b oinarrizko entsegu talderako eta c entsegu osagarrien talderako (2, 3, 5, 6, eta 7), eta «bideetako zoruak, harrixkak, nahastura bituminosoak eta haien osagaiak», 10005V SG05 kodearekin, b oinarrizko entseguen talderako eta c entsegu osagarrien talderako (10, 11).

AURREKARIAK:

*Lehenengoa.–* Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontrol zuzendariaren 2005eko irailaren 22ko Ebazpenaren arabera, Gikesari kreditazioa eman zitzaion eraikuntzaren kalitatea kontrolatzeko honako arlo hauetan: «hormigoiaren eta haren osagaien, eta altzairuzko armaduren kontrola» eta «bideetako zoruak, harrixkak, nahastura bituminosoak eta haien osagaiak».

Kreditazio horrek bost urteko baliozkotasun aldia zuen, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita, hots, 2005eko urriaren 21etik aurrera, egun horretako 201. zenbakiko EHAAn argitaratu baitzen.

*Bigarrena.–* Erakunde horrek 2006ko ekainaren 8an aurkeztu zuen idazkia eta dokumentazioa 2005. urtean lortutako arlo beretarako kreditazioa eskatzeko, kokapen berrirako, hots, Donostiako Fernando Mugica kaleko 11. zenbakirako.

Erakunde eskatzaileak aurkezturiko dokumentazioa aztertu ondoren, zenbait hutsune atzeman ziren, eta, hortaz, erakunde eskatzaileari honako dokumentazio hau eskatu zitzaion:

1.– Eraikinaren Lehen Erabilerako Lizentzia lortu izanaren kreditazio-dokumentuak, besteak beste Donostiako Udaleko Ingurumeneko zinegotzi delegatuaren 2005eko azaroaren 11ko Ebazpenaren bidez eskaturiko baldintza baitzen hori, entsegu-laborategien jarduera abiarazteko betiere.

2.– Eusko Jaurlaritzaren Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren baimena lortu izanaren kreditazio-dokumentua enpresak daukan instalazio erradioaktiboaren kokapena aldatzeko, instalazio nuklear erradioaktiboei buruzko Erregelamenduaren 40. artikuluak eskaturikoaren arabera (Industria eta Energia Ministerioaren 1999ko abenduaren 3ko 1836/1999 Errege Dekretuak onartu zuen).

517

RESOLUCIÓN de 1 de diciembre de 2006, de la Directora de Vivienda, Innovación y Control, por la que se autoriza la modificación de la acreditación concedida por resolución de fecha 22 de septiembre de 2005 al laboratorio de ensayos Gikesa, para el control de calidad de la edificación en las áreas de «control de hormigón y sus componentes y de las armaduras de acero», con el código 10005EHA05, para los grupos de ensayos básicos b y complementarios c (2, 3, 5, 6, y 7), y de «suelos, áridos, mezclas bituminosas y materiales constituyentes en viales», con el código 10005VSG05, para los grupos de ensayos básicos b y complementarios c (10, 11).

ANTECEDENTES DE HECHO:

*Primero.–* En virtud de Resolución de 22 de septiembre de 2005 de la Directora de Vivienda, Innovación y Control se concedió a Gikesa acreditación como laboratorio para el control de calidad de la edificación en las áreas de «control de hormigón y sus componentes y de las armaduras de acero» y de «suelos, áridos, mezclas bituminosas y materiales constituyentes en viales».

La citada acreditación tenía un período de validez de cinco años, contados a partir del día siguiente a la fecha de publicación de la resolución de acreditación en el Boletín Oficial del País Vasco, publicación que tuvo lugar en el BOPV n.º 201, de 21 de octubre de 2005.

*Segundo.–* La entidad antedicha presentó con fecha 8 junio de 2006 escrito y documentación para la solicitud de acreditación para las mismas áreas para las que ya se obtuvo acreditación en el año 2005, para el nuevo emplazamiento de la calle Fernando Múgica, n.º 11 de Donostia-San Sebastián.

Una vez examinada la documentación aportada por la entidad solicitante, se constataron una serie de deficiencias en la misma, por lo que se requirió a la entidad solicitante para la presentación de la siguiente documentación:

1.– Documento acreditativo de la obtención de la Licencia de Primera Utilización del edificio, condición exigida, entre otras, por Resolución de 11 de noviembre de 2005, del Concejal delegado de Medio Ambiente del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián, para poner en funcionamiento la actividad de laboratorio de ensayos.

2.– Documento acreditativo de la obtención de la autorización del Departamento de Industria, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco, para la modificación del emplazamiento de la Instalación Radiactiva con la que cuenta la empresa, según lo exigido por el artículo 40 del Reglamento sobre instalaciones nucleares radiactivas (aprobado por Real Decreto 1836/1999, de 3 de diciembre de 1999, del Ministerio de Industria y Energía).

3.– Sozietatearen estatutuetan egoitza soziala aldatzeko aukera biltzen duen kreditazio-dokumentazioa (estatutuak aldatu izanari buruzko eskritura publikoa edo erakundearen egoitza aldatzeko harturiko erabaki soziala).

Erakundeak arestian eskaturiko dokumentazio guztia igorri du 2006ko urriaren 31ko idazkiaren bidez.

***Hirugarrena.***– Azkenik, 2006ko abuztuaren 2an Eraikuntzaren Kalitatea Kontrolatzeko Laborategiko bi teknikarik beste ikuskapen-bisita bat egin zuten aztergai dugun laborategian, eta kreditazio-baldintzak bete egiten zirela egiaztatu zuten, eta, ondorioz, dagokion aldeko akta jaso da.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK:

***Lehenengoa.***– Apirilaren 20ko 69/2004 Dekretuaren bidez (2004ko maiatzaren 4ko 82. zenbakiko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen) arautzen da Euskal Autonomia Erkidegoan eraikuntzaren kalitatea kontrolatzeko entsegu-laborategien kreditazioa lortzeko prozedura.

Adierazitako arauaren 10. artikuluko azkenaurreko paragrafoak aurreikusten duenez, «kreditaturiko laborategiak erakunde kreditatzaileari jakinaraziko dio kreditazioaren hasierako baldintzen edozein aldaketa».

2006ko ekainaren 8ko idazkian jakinarazten da erakundearen egoitza-aldaketa, eta kreditazioa eskatzen da. Dena den, ez da egokitzat jo beste kreditaziorik ematea, gertaturikoa zera izan baita, 2005eko irailaren 22an emandako kreditazioaren baldintzen aldaketa, eta horren ondorioz hasierako kreditazio hori aldatu egin da, gainerakoan oso-osorik atxikiko bada ere.

***Bigarrena.***– Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontrol zuzendaria da organo eskuduna ebazpen hau hartzeko, apirilaren 20ko adierazitako 69/2004 Dekretuaren 4. artikuluan ezarritakoaren arabera.

***Hirugarrena.***– Apirilaren 20ko 69/2004 Dekretuaren 6. artikuluak adierazten ditu kreditazioaren baldintza teknikoak, eta arau beraren 8. artikuluak adierazten du laborategian ikuskapen-bisita bat egin beharra baldintza horiek betetzen direla egiaztatzeko.

Espediente honetan egiaztatu denez, emandako kreditazioa atxikitzeko eskakizun guztiak betetzen dira.

Orain arte azaldutakoa aintzat hartuta, honako hau

3.– Documentación acreditativa de la modificación del domicilio social en los estatutos de la sociedad (escritura pública de modificación de estatutos o el acuerdo social de cambio de domicilio de la entidad).

La entidad ha enviado la documentación anteriormente solicitada con escrito de fecha 31 de octubre de 2006.

***Tercero.***– Por último, con fecha 2 de agosto de 2006 se llevó a cabo por técnicos del Laboratorio para el Control de Calidad en la Edificación nueva visita de inspección al laboratorio interesado, verificándose en la misma el cumplimiento de las condiciones de acreditación, tras lo cual se ha levantado el correspondiente acta favorable.

FUNDAMENTOS DE DERECHO:

***Primero.***– Mediante Decreto 69/2004, de 20 de abril, publicado en el Boletín Oficial del País Vasco n.º 82, de 4 de mayo de 2004, se regula el procedimiento a seguir en la acreditación de laboratorios de ensayo para el control de calidad de la edificación en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El artículo 10 de la norma citada prevé en su penúltimo párrafo que «El laboratorio acreditado comunicará al Organismo Acreditador cualquier cambio de las condiciones iniciales de la acreditación».

En el escrito de fecha 8 de junio de 2006 se comunica que se ha producido el cambio de domicilio de la entidad, y se solicita la acreditación. No obstante, no se estima procedente la concesión de una nueva acreditación, dado que lo que se ha producido es un cambio en las condiciones de la concedida con fecha 22 de septiembre de 2005, y la consecuencia de tal circunstancia es la modificación de dicha acreditación inicial, que por lo demás se mantendrá íntegramente en el resto de sus términos.

***Segundo.***– La Directora de Vivienda, Innovación y Control es el órgano competente para la adopción de la presente resolución, en virtud de lo establecido en el artículo 4 del citado Decreto 69/2004 de 20 de abril.

***Tercero.***– El artículo 6 del Decreto 69/2004 de 20 de abril señala las condiciones técnicas de la acreditación, y el artículo 8 del mismo cuerpo normativo indica la necesidad de realizar una visita de inspección al laboratorio para la verificación del cumplimiento de tales condiciones.

En el presente expediente se ha constatado que se cumplen todos los requisitos para el mantenimiento de la acreditación concedida.

En consecuencia con todo lo anteriormente expuesto,

EBATZI DUT:

***Lehenengoa.***– 2005eko irailaren 22ko Ebazpenaren bidez Gikesa entsegu-laborategiari emandako kreditazioaren aldaketa baimentzea. Honako arlo hauek biltzen ditu kreditazio horrek: «hormigoiaren eta haren osagaien, eta altzairuzko armaduren kontrola», 10005EHA05 kodearekin b oinarrizko entsegu talderako eta c entsegu osagarrien talderako (2, 3, 5, 6, eta 7), eta «bideetako zoruak, harrixkak, nahastura bituminosoak eta haien osagaiak», 10005VSG05 kodearekin, b oinarrizko entseguen talderako eta c entsegu osagarrien talderako (10, 11)], eta erakundearen egoitza berria honako hau izango dela zehaztea: Fernando Mugica kaleko 11. zenbakia, behea, 20018, Donostia.

***Bigarrena.***– Baimentzen den aldaketaren kreditazioak hasieran esleituriko hedadura atxikiko du eta bost urteko baliotasun aldia izaten jarraituko du. Kontuan hartu beharrekoa da aldi hori 2005eko urriaren 22tik aurrera hasiko dela zenbatzen, hots, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian hasierako emate-ebazpena argitaratu eta biharamunetik aurrera (2005eko urriaren 21eko 201. zenbakiko EHAAn argitaratu zen).

***Hirugarrena.***– Ebazpen honek ez du administrazio-bidea agortzen eta horren aurka gora jotzeko errekurtsoa jarri ahalko zaio Etxebizitza sailburuordeari, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasi eta hilabeteko epean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 114. artikuluari eta hurrengoei jarraiki.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko abenduaren 1a.

Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontrol zuzendaria,
SONIA SAMANIEGO SOTO.

RESUELVO:

***Primero.***– Autorizar la modificación de la acreditación concedida por Resolución de fecha 22 de septiembre de 2005 al laboratorio de ensayos Gikesa, para el control de calidad de la edificación en las Áreas de «control de hormigón y sus componentes y de las armaduras de acero», con el código 10005EHA05, para los grupos de ensayos básicos B y complementarios C (2, 3, 5, 6, y 7), y de «suelos, áridos, mezclas bituminosas y materiales constituyentes en viales», con el código 10005VSG05, para los grupos de ensayos básicos B y complementarios C (10, 11), y determinar que el nuevo domicilio de la entidad será el siguiente: calle Fernando Múgica n.º 11, bajo, 20018 en Donostia-San Sebastián.

***Segundo.***– La acreditación cuyo cambio se autoriza mantendrá el alcance inicialmente conferido, y seguirá teniendo un período de validez de cinco años, debiendo tenerse en cuenta que el día inicial del cómputo de dicho período es el 22 de octubre de 2005, día siguiente a la fecha de publicación de la resolución inicial de concesión en el Boletín Oficial del País Vasco, publicación que tuvo lugar en el BOPV n.º 201, de 21 de octubre de 2005.

***Tercero.***– Contra la presente resolución, que no agota la vía administrativa, podrá interponerse recurso de alzada ante el Viceconsejero de Vivienda, en el plazo de un mes desde el día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 114 y siguientes de la Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

En Vitoria-Gasteiz, a 1 de diciembre de 2006.

La Directora de Vivienda, Innovación y Control,
SONIA SAMANIEGO SOTO.